

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**112/2019 Foru Agindua, martxoaren 15ekoa, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuarena. Onestea 763 eredia, joko jardueren gaineko zergaren autolikidazioa egiteko erabiltzen dena urteroko edo urte anitzeko jardueren kasuan, eta onestea, halaber, eredia aurkezteko modua eta epeak, eta arautzea baldintza orokorrak eta telematikoki aurkezteko prozedura**

Jokoa arautzeko maiatzaren 27ko 13/2011 Legearen 48. artikulua joko jardueren gaineko zerga berria xedatu zuen, zeinaren zerga gaia baita aipatutako legeko 2. artikuluko 1. apartatuan arautzen diren jokoak, zozketak, lehiaketak, apustuak eta jarduerak antolatzea edo egitea estatuan, bai eta lege horren 2.2.c) artikuluan aipatzen diren publizitaterako edo sustapenerako ausazko konbinazioak ere.

Zerga hori apirilaren 21eko 7/2014 Legearen bitartez ituntzen da. Lege horrek aldatu zuen Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onetsi zuen maiatzaren 23ko 12/2002 Legea. 12/2002 Legearen 36 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, joko jardueren gaineko zerga zerga itundua da, eta Estatuak unean-unean ezarritako funtsezko eta formazko arau berberak erabiliko dira hura arautzeko. Horrez gain, lurralde historikoetako erakunde eskudunek aitortzen eta diru sarrerak egiteko ereduak onar ditzakete, zeinetan, gutxienez, lurralde erkideetan jasotako datu berberak agertuko diren, eta gainera, eskumena dute likidazioaldi bakoitzeko diru sarrerak egiteko epeak finkatzeko, baina horiek ezin dira oso desberdinak izan Estatuaren administrazioak finkatutakoen aldean.

Arabako Lurralde Historikoan, Joko Jardueren gaineko Zergari buruzko uztailaren 9ko 23/2014 Foru Araua onetsi zen, eta hartan ezarri zen zergadunek, haien zerga egoitza edozein dela ere, Arabako Foru Aldundiari ordainduko dizkiotela zergak, Arabako Lurralde Historikoan ekitaldi bakoitzean gauzatutako eragiketen bolumenaren proportzioan.

Estatuaren 2018rako Aurrekontu Orokorren uztailaren 3ko 6/2018 Legeak joko jardueren gaineko zergan aldaketa bat egin zuen. Ondorioak 2018ko uztailaren 1etik aurrera zituela, aldatu egin zen jokoa arautzen duen maiatzaren 27ko 13/2011 Legearen 48. artikuluko 7. apartatua (zerga tasa motak).

Horregatik, beharrezkoa da onestea urteroko edo urte anitzeko jardueren kasuan joko jardueren gaineko zergaren autolikidazioa egiteko eredu berria Arabako Lurralde Historikorako, eta eredia aurkeztu eta zerga ordaintzeko betebeharra errazagoa izan dadin, eredu hori Internet bidez telematikoki aurkezteko aukera gaitu da.

Zeharkako Zergen Zerbitzuak horri buruz emandako txostena aztertu da.

Horregatik, eta dagozkidan eskumenez baliatuz,

XEDATZEN DUT

#### 1. artikulua. Onestea 763 eredia

1. Joko jardueren gaineko zergaren autolikidazioa egiteko 763 eredia onesten da, urtebeteko eta urte anitzeko jardueren kasuan. Eredua foru agindu honen eranskin gisa doa.

2. Arabako Lurralde Historikoko Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauaren 35. artikuluko 3. apartatuan aipatzen diren pertsona fisiko edo juridikoek eta erakundeek, baldin eta Joko Jardueren gaineko Zergari buruzko uztailaren 9ko 23/2014 Foru Arauaren 4. artikuluan

aipatzen diren jarduerak gauzaten badituzte, 763 eredia aurkeztu beharko dute Arabako Lurralde Historikoko zerga administrazioan, haien zerga egoitza edozein dela ere eta ekitaldi bakoitzean Arabako Lurralde Historikoan gauzaturako eragiteken bolumenaren proportzioan.

3. 763 eredia Interneten bidez soilik aurkez daiteke.

### **2. artikulua. 763 eredia Internet bidez telematikoki aurkezteko prozedura**

Bat. Aurreko artikuluan xedaturakoa betetzeko, 763 eredia Internet bidez telematikoki aurkezteko baldintza hauek izango dira:

Aitorpena egitera behartuta dagoen pertsonak edo erakundeak identifikazio fiskaleko zenbakia (IFZ) izan beharko du eta Arabako Foru Ogasuneko Zergadunen Erroldan izena emanda izan aitorpena egin aurretik.

Horrez gain, subjektu pasiboak edo profesional baimenduak, halakorik bada, apirilaren 5eko 26/2011 Foru Dekretuak eta azaroaren 29ko 74/2011 Foru Dekretuak araututako AFaren egoitza elektronikoko (AldundiDigitala) erabiltzaile sarbidea izan beharko du.

Bi. Aurkezpen prozedura honako hau izango da:

Eredua aurkeztu behar duen pertsona AFaren egoitza elektronikora konektatuko da.

Zerbitzuak erabiltzeko, ziurtagiri digitala, itsasoentzien jokoa edo AFAko egoitza elektronikora sartzeko gaitzen den beste edozein sistema erabili beharko du. Gainera, egoitza elektronikora sartzeko beharrezkoak diren ezaugarri teknikoak dituen ekipoa izan beharko du.

763 eredia telematikoki aurkezteko, AFaren egoitza elektronikoa eskuragarri izango den onetsitako eredura egokitutako formularioko datuak bete eta igorri beharko ditu.

Behin 763 ereduko formularioko datuak beteta, aitorpena igorriko du. Aitorpena onartzen bada, bidaltzaileak jaso izanaren adierazpena jasoko du, zeinetan, besteak beste, honako hauek adieraziko diren: aurkezpen zenbakia, data eta ordua. Aitorpena onartzen ez bada, pantailan agertuko dira antzemandako akatsak. Akatsok zuzendu egin beharko ditu igorleak sarrera formularioan, edo berriz bidali beharko du aitorpena, akatsaren zioa beste arrazoiren bat bada.

Subjektu pasiboa ez den beste norbaitek aurkeztu ahal izango du 763 eredia, baldin eta horretarako baimena jaso badu honako honetan aurreikusita dagoen moduan: 15/2010 Foru Dekretua, apirilaren 13koa, Arabako Foru Aldundiaren aurrean zerga arloko izapide eta jarduketa jakinak egiteko borondatezko ordezkartza arautzen duena.

### **3. artikulua. 763 eredia aurkezteko epea**

Zergadunek hiru hilean behin aurkeztuko dute 763 eredia, bai eta haren zenbatekoa ordaindu ere; hain zuzen ere, apirilaren, uztailaren, urriaren eta urtarrilaren 1etik 25era bitartean (bi egun horiek barne), aurreko hiruhilekoan egindako jarduerengatik.

### **4. artikulua. 763 ereduko autolikidatutako zorra ordaintzea**

Bitarteko elektronikoen bidez aurkeztutako 763 ereduko autolikidazioei dagozkien ordainketak banku helbideraketaren edo ordainketa gutunaren bidez egingo dira, eta ordainketa gutunak euskal administrazioaren ordainketa pasabidearen bidez edota finantza erakunde laguntzailaren bidez ordaindu ahal izango dira.

## **XEDAPEN INDARGABETZAILE BAKARRA**

Foru agindu hau indarrean sartzetik denean, indargabetu egingo da Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren urriaren 30eko 673/2014 Foru Agindua, zeinak onetsi baitzuen 763 eredia, joko jardueren gaineko zergaren autolikidazioa egiteko erabiltzen dena, urteroko edo urte anitzeko jardueren kasuan.

**AZKEN XEDAPENA**

Foru agindu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Gasteiz, 2019ko martxoaren 15a

*Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatua*

*JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ*

*Ogasun zuzendaria*

*TERESA VIGURI MARTÍNEZ*

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava</p> <p>www.araba.eus</p>	<p><b>Joko jardueren gaineko zerga, urtebeteko eta urte anitzeko jardueren kasuan</b></p> <p><b>Impuesto sobre actividades de juego en los supuestos de actividades anuales y plurianuales</b></p> <p><b>JARRAIBIDEAK ■ INSTRUCCIONES</b></p>	<h1>763</h1>
---	---	--------------

Ogasun, Finantza  
eta Aurrekontu Saila

Departamento de Hacienda,  
Finanzas y Presupuestos

## JARRAIBIDEAK

### 1. orrialdea

#### Aitortzailea

Enpresa operadorea Ceutan eta Melillan bizi denean, Ceuta eta Melilla laukian x bat egingo da.

#### Sortzapena

*Ekitaldia:* aitorpena zein ekitaldira dagokion zehaztuko da.

*Aldia:* hiru hilabeterik behin aurkeztu eta ordainduko dira aurreko hiruhilekoan egindako jardueri dagozkionak, hain zuzen ere, apirilaren, uztailaren, urriaren eta urtarrilaren 1aren eta 25aren bitartean, hurrenez hurren.

#### Autolikidazioa

*Tasa:* hona hemen aplikatuko diren zerga tasak:

Zerga tasak	Araubide orokorra	Ceuta eta Melillan egiazki dauden enpresak	
Sarrera garbietan	Elkarrekiko kirol apustuak Kontrapartidako kirol apustuak Zaldi lasterketetako elkarrekiko apustuak Zaldi lasterketetako kontrapartidako apustuak	% 20	% 10
	Elkarrekiko beste apustu batzuk Kontrapartidako beste apustu batzuk		
	Zozketak	%20	%10
	Onura publikoko edo ongintzako zozketak	%5	%2,5
Komisioak eta beste diru sarrera batzuetan	Lehiaketak Beste joko batzuk	%20	%10
	Kirol apustu gurutzatuak Beste apustu gurutzatu batzuk	%20	%10
	Beste joko batzuk	%20	%10

*Kuota:* sarrera garbiak laukia/komisioak eta beste sarrera batzuk laukia tasa laukiarekin biderkatzearen emaitza islatuko da.

*Arabako egindako eragiketen bolumena %:* Arabako Lurralde Historikoan joko modalitate bakoitzeko egin diren eragiketen bolumenaren ehunekoa adieraziko da. Joko modalitatea zozketak, onura publikoko edo ongintzako zozketak edo lehiaketak direnean ehuneko hori %100 izango da, zergadunaren edo erakunde zergadunaren zerga egoitza Arabako Lurralde Historikoan badago.

## INSTRUCCIONES

### Página 1

#### Declarante

Cuando la operadora declarante reside en Ceuta y Melilla se marcará con una x la casilla Ceuta y Melilla.

#### Devengo

*Ejercicio:* se hará constar aquel al que corresponda la declaración.

*Periodo:* la presentación e ingreso deberá realizarse de forma trimestral entre los días 1 a 25, ambos inclusive, de los meses de abril, julio, octubre y enero, en relación con las actividades realizadas en el trimestre inmediato anterior.

#### Autoliquidación

*Tipo:* los tipos impositivos a aplicar son los siguientes:

Tipos impositivos		Régimen general	Operadoras realmente radicadas en Ceuta y Melilla	
Sobre ingresos netos	Apuestas deportivas mutuas Apuestas deportivas de contrapartida Apuestas hípcas mutuas Apuestas hípcas de contrapartida Otras apuestas mutuas Otras apuestas de contrapartida	20%	10%	
	Rifas	20%	10%	
	Rifas de utilidad pública o benéfica	5%	2,5%	
	Concursos Otros juegos	20%	10%	
	Sobre comisiones y otros ingresos	Apuestas deportivas cruzadas Otras apuestas cruzadas	20%	10%
		Otros juegos	20%	10%

*Cuota:* se reflejará el resultado de multiplicar la casilla Ingresos netos/casilla Comisiones y otros ingresos por la casilla tipo.

*% Volumen de operaciones Álava:* se indicará el porcentaje de volumen de operaciones realizadas en el Territorio Histórico de Álava respecto a cada modalidad de juego. En las modalidades de juego correspondientes a rifas, rifas de utilidad pública o benéfica o concursos este porcentaje será del 100% si la persona o entidad contribuyente tiene su domicilio fiscal en el Territorio Histórico de Álava.

*Arabako Lurralde Historikoaren kuota:* kuota Arabako Lurralde Historikoan joko modalitate bakoitzeko egin diren eragiketen bolumenaren ehunekoarekin biderkatzearen emaitza adieraziko da.

*Sartzekoa, guztira:* joko modalitate bakoitzean Arabako Lurralde Historikoari dagozkion kuoten batuketaren emaitza adieraziko da.

$(1210) = (17) + (27) + (37) + (47) + (57) + (67) + (77) + (87) + (97) + (107) + (175) + (185) + (195)$

*Aurreko autolikidazioetan kontzeptu, ekitaldi eta zergaldi berberen arabera sartutako zenbatekoak:* laukitxo hau ordezeko autolikidazioa egiten denean beteko da

## 2. orrialdea

*Lurraldea:* kasuan kasuko lurraldea jarriko da: Lurralde komuna, Araba, Gipuzkoa, Bizkaia edo Nafarroa.

*Eragiketa bolumena:* ekitaldian lurralde bakoitzean joko modalitate bakoitzeko lortu den eragiketa bolumena adieraziko da.

*Ehunekoa (%):* ekitaldian lurralde bakoitzaren eragiketa bolumenaren proportzioa adieraziko da. Proportzioa zehazteko, egoitza lurralde komunean, Araban, Gipuzkoan, Bizkaian edo Nafarroan duten jokalariek jokatu dituzten diru kopuruen pisu erlatiboa hartuko da kontuan. Ehuneko hau kalkulatzeko, baztertu egingo dira ez-egoiliarrek edo egoitza identifikaturik gabeko jokalariek kokatutako diru kopuruak. Horrela kalkulaturik gabeko jokalarien eragiketari ere aplikatuko zaie.

## 3. orrialdea

*Jokalari ez-egoiliarren eragiketak:* jokalaria ez-egoiliarrek jokaturiko diru kopuruak adieraziko dira.

*Egoitza identifikaturik gabeko jokalarien eragiketak:* egoitza identifikaturik gabeko jokalariek jokaturiko diru kopuruak adieraziko dira.

*Cuota Territorio Histórico de Álava:* se reflejará el resultado de multiplicar la cuota por el porcentaje de volumen de operaciones en el Territorio Histórico de Álava, respecto a cada modalidad de juego.

*Total a ingresar:* se indicará el resultado de sumar las cuotas que le corresponden al Territorio Histórico de Álava de cada modalidad de juego.

$(1210) = (17) + (27) + (37) + (47) + (57) + (67) + (77) + (87) + (97) + (107) + (175) + (185) + (195)$

*Importes ingresados en anteriores autoliquidaciones por el mismo concepto, ejercicio y periodo:* se cumplimentará esta casilla si se trata de una autoliquidación sustitutiva.

## Página 2

*Territorio:* se consignará el territorio que corresponda: Territorio común, Álava, Gipuzkoa, Bizkaia o Navarra.


*Volumen de operaciones:* se hará constar el volumen de operaciones obtenido en cada territorio durante el periodo, respecto de cada modalidad de juego.

*Porcentaje (%):* se hará constar la proporción del volumen de operaciones en cada territorio durante el periodo. Esta proporción se determinará en función del peso relativo de las cantidades jugadas correspondientes a jugadores residentes en Territorio común, Álava, Gipuzkoa, Bizkaia o Navarra. En el cálculo de este porcentaje se excluyen las cantidades jugadas por no residentes o por jugadores sin residencia identificada. El porcentaje así calculado también será aplicable a las operaciones de jugadores no residentes o con residencia no identificada.

## Página 3

*Operaciones jugadores no residentes:* se consignarán las cantidades jugadas por jugadores no residentes.

*Operaciones jugadores con residencia no identificada:* se consignarán las cantidades jugadas por jugadores con residencia no identificada.

 Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus	<b>Joko jarduren gaineko zerga, urtebeteko eta urte anitzeko jarduren kasuan</b> <b>Impuesto sobre actividades de juego en los supuestos de actividades anuales y plurianuales</b> <b>AUTOLIKIDAZIOA ■ AUTOLIQUIDACIÓN</b>	1. ORRIA PÁGINA 1  <b>763</b>
	<b>Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila</b> <b>Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos</b>	

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila

Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos

## IDENTIFIKAZIOA ■ IDENTIFICACIÓN

IFZ ■ NIF	Deiturak eta izena / Sozietatearen izena ■ Apellidos y nombre / Razón social	Ceuta eta Melilla Ceuta y Melilla
		10


## SORTZAPENA ■ DEVENGO

Ekitaldia ■ Ejercicio		901 Ordezko aitortpena Declaración sustitutiva	1	Aurreko aurkezpen zenbakia Nº de presentación anterior	
Zergaldia ■ Período		901 Aitortpen osagarria Declaración complementaria	2	902	

## AUTOLIKIDAZIOA ■ AUTOLIQUIDACIÓN

A) DIRU SARRERA GARBIEN GAIKEKO ZERGA TASAK TIPOS IMPOSITIVOS SOBRE INGRESOS NETOS										
Joko modalitatea Modalidad de juego	Diru sarrera gordinak Ingresos brutos	Sari ordainduak Premios pagados	Sarrera garbiak Ingresos netos	% Tasa Tipo %	Kuota Cuota	% Erreg. Bol. Araba % Vol. oper. Álava	(A) Kuota AFA Cuota DFA (A)			
Elkarrekiko kirol apustuak Apuestas deportivas mutuas	11	12	13	14	15	16	17			
Kontrapartidako kirol apustuak Apuestas deportivas de contrapartida	21	22	23	24	25	26	27			
Elkarrekiko zaldi apustuak Apuestas hípcas mutuas	31	32	33	34	35	36	37			
Zaldi lasterketetako kontrapartidako apustuak Apuestas hípcas de contrapartida	41	42	43	44	45	46	47			
Elkarrekiko beste apustu batzuk Otras apuestas mutuas	51	52	53	54	55	56	57			
Kontrapartidako beste apustu batzuk Otras apuestas de contrapartida	61	62	63	64	65	66	67			
Zozketak Rifas	71	72	73	74	75	76	77			
Onura publikoko zozketak edo ongintzakoak Rifas de utilidad pública o benéficas	81	82	83	84	85	86	87			
Lehiaketak Concursos	91	92	93	94	95	96	97			
Beste joko batzuk Otros juegos	101	102	103	104	105	106	107			
B) KOMISIOEN ETA BESTE DIRU SARRERA BATZUEN GAIKEKO ZERGA TASAK TIPOS IMPOSITIVOS SOBRE COMISIONES Y OTROS INGRESOS										
Joko modalitatea Modalidad de juego	Komisioak eta beste diru sarrera batzuk Comisiones y otros ingresos	% Tasa Tipo %	Kuota Cuota	% Erreg. Bol. Araba % Vol. oper. Álava	(B) Kuota AFA Cuota DFA (B)					
Kirol apustu gurutzatuak Apuestas deportivas cruzadas	171	172	173	174	175					
Beste apustu gurutzatuak Otras apuestas cruzadas	181	182	183	184	185					
Beste joko batzuk Otros juegos	191	192	193	194	195					
Sartzeko guztira Total a ingresar					1210					
Errekargua epez kanpo aurreztu izanagatik Recargo por presentación extemporanea					1215					
Berandutze interesak Intereses de demora					1220					
Aurreko autolikidazioetan kontzeptu, ekitaldi eta zergaldi berberen arabera sartutako zenbatekoak Importes ingresados en anteriores autoliquidaciones por el mismo concepto, ejercicio y período					1225					
Sartzeko guztira Total deuda tributaria					1230					

RE. 19/02Z



Arabako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Alava  
www.araba.eus

**Joko jardueren gaineko zerga, urtebeteko eta urte anitzeko jardueren kasuan**  
Impuesto sobre actividades de juego en los supuestos de actividades anuales y plurianuales

2. ORRIA  
PAGINA 2

**763**

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila  
Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos

**IDENTIFIKAZIOA ■ IDENTIFICACIÓN**


IFZ ■ NIF Deiturak eta izena / Societatearen izena ■ Apellidos y nombre / Razón social

**A) DIRU SARRERA GARBIEEN GAINEKO ZERGA TASAK**  
TIPOS IMPOSITIVOS SOBRE INGRESOS NETOS

	Lurralde araban Territorio común		Araba Alava		Gipuzkoa		Bizkaia		Nafarroa Navarra		Guztira Total	
	Erag. bol. Vol. oper.	%	Erag. bol. Vol. oper.	%	Erag. bol. Vol. oper.	%	Erag. bol. Vol. oper.	%	Erag. bol. Vol. oper.	%	Erag. bol. Vol. oper.	%
<b>Elkarrekin kirol apustuak</b> Apuestas deportivas mutuas	231	234	233	234	235	236	237	238	239	240	241	242
<b>Kontrapartidako kirol apustuak</b> Apuestas deportivas de contrapartida	251	254	253	254	255	256	257	258	259	260	261	262
<b>Elkarrekin zaldi apustuak</b> Apuestas hípcas mutuas	271	274	273	274	275	276	277	278	279	280	281	282
<b>Zaldi lasterketako kontrapartidako apustuak</b> Apuestas hípcas de contrapartida	291	294	293	294	295	296	297	298	299	300	301	302
<b>Elkarrekin beste apustu batzuk</b> Otras apuestas mutuas	311	314	313	314	315	316	317	318	319	320	321	322
<b>Kontrapartidako beste apustu batzuk</b> Otras apuestas de contrapartida	331	334	333	334	335	336	337	338	339	340	341	342
<b>Beste joko batzuk</b> Otros juegos	351	354	353	354	355	356	357	358	359	360	361	362

**B) KOMISIOEN ETA BESTE DIRU SARRERA BATZUEN GAINEKO ZERGA TASAK**  
TIPOS IMPOSITIVOS SOBRE COMISIONES Y OTROS INGRESOS

<b>Kirol apustu gurutzatuek</b> Apuestas deportivas cruzadas	411	414	413	414	415	416	417	418	419	420	421	422
<b>Beste apustu gurutzatu batzuk</b> Otras apuestas cruzadas	431	434	433	434	435	436	437	438	439	440	441	442
<b>Beste joko batzuk</b> Otros juegos	451	454	453	454	455	456	457	458	459	460	461	462



Arabako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Alava  
www.araba.eus

**Joko jardueren gaineko zerga, urtebeteko eta urte anitzeko jardueren kasuan**  
Impuesto sobre actividades de juego en los supuestos de actividades anuales y plurianuales

3. ORRIA  
PAGINA 3

**763**

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila

Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos

**IDENTIFIKAZIOA ■ IDENTIFICACIÓN**

IFZ ■ NIF

Deiturak eta izena / Sozietatearen izena ■ Apellidos y nombre / Razón social

**A) DIRU SARRERA GARBIEEN GAINEKO ZERGATASAK**  
TIPOS IMPOSITIVOS SOBRE INGRESOS NETOS

Joko modalitatea Modalidad de juego	Jokalarri espezialaren eragileak Operaciones jugadores no residentes	Identifikatu gabeko bizilagun denakoren jokatzearen eragileak Operaciones jugadores con residencia no identificada
Elkarrekin kirol apustuek Apuestas deportivas mutuas	611	612
Kontrapatidako kirol apustuek Apuestas deportivas de contrapartida	621	622
Elkarrekin zaldi apustuek Apuestas hipicas mutuas	631	632
Zaldi lasterketeako kontrapatidako apustuek Apuestas hipicas de contrapartida	641	642
Elkarrekin beste apustu batzuk Otras apuestas mutuas	651	652
Kontrapatidako beste apustu batzuk Otras apuestas de contrapartida	661	662
Beste joko batzuk Otros juegos	671	672

**B) KOMISIOEN ETA BESTE DIRU SARRERA BATZUEN GAINEKO ZERGATASAK**  
TIPOS IMPOSITIVOS SOBRE COMISIONES Y OTROS INGRESOS

Kirol apustu gurutzatuak Apuestas deportivas cruzadas	711	712
Beste apustu gurutzatu batzuk Otras apuestas cruzadas	721	722
Beste joko batzuk Otros juegos	731	732

Eragileak guztira Total operaciones	891	892
--	-----	-----



**LEGE OHARRA. DATUEN BABESA**

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan (Datuen babesteko erregelamendu orokorra) jasotakoa betetzeko xedearekin, jakinarazten dizugu ematen dizkiguzun datuak Arabako Foru Aldundiaren titulartasuneko Zergadunen Fitzategien sartuko direla. Datu horien tratamenduak zergak kudeatzeko, ikuskatzeko eta biltzeko egiten dira.

Datu horiek isilpekoak dira eta horixe bermatzen dugu, ez baitzaizkie jakinaraziko hirugarrenei, salbu eta legez baimentzen diren kasuetan.

Erregelamendu horretan aitortzen diren datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, datuak ezerezteko, haien aurka egiteko eta datuak mugatzeko eskubideak egikaritu ahal izango dituzu Arabako Foru Aldundiaren Erregistroaren Bulegoan (Probintzia plaza 5, 01001 Gasteiz, Araba).

Informazio gehiago:

<http://www.araba.eus/web/LegezkoOharHedatua>

**AVISO LEGAL. PROTECCIÓN DE DATOS**

Con objeto de dar cumplimiento a lo establecido en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 (Reglamento General de Protección de Datos), le informamos que los datos que nos facilita van a ser incluidos en el Fichero de Contribuyentes titularidad de la Diputación Foral de Álava cuyos tratamientos se realizan para la gestión, inspección y recaudación de los diferentes tributos.

Garantizamos la confidencialidad de sus datos, no siendo comunicados a terceras personas fuera de los supuestos habilitados legalmente.

Usted podrá ejercitar sus derechos de acceso, rectificación, supresión, oposición y limitación que reconoce el citado Reglamento dirigiéndose a la Oficina de Registro de la Diputación Foral de Álava, (Plaza de la Provincia, 5, 01001 Vitoria-Gasteiz, Álava).

Para más información:

<http://www.araba.eus/web/AvisoLegalAmpliado>